

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure negozioa ondorengo bezeroei zuzendua dago:

Generoaren aldetik, emakumezkoek eta gizonezkoek produktu berdinak erosteko aukera edukiko dute eta **adinari** dagokionez, gazte nahiz zaharrek aukera bera dute baina umeentzako zuzenduta dauden produktuak ere edukiko ditugu erakargarriak izango direnak. **Ikasketa mailan** ez da desberdintasunik egingo, hau da, maila bat edo beste edukitzeak. **Lurraldeari** dagokionez, gure negozioa Zumaian kokatua dago, baina Euskal Herri osoan zabaltzen joateko ideia dugu. Gure bezeroaren egoera **sozioekonomikoak** ez du inporta izan ere produktuak balio duen prezio kantitatea edukitzearekin nahikoa da, gainera beherapenak egingo ditugu. Eskainiko ditugun produktuen prezioek, maila ertaineko biztanleei zuzenduta egongo dira.

